

BARKOXEKO KOBLAKARI-ESKOLA XVIII-XIX. MENDEETAN*

Patri URKIZU

....à l'occasion du quel fut chanté une charmante poésie qui
fleure bon elle aussi l'école barcusiennne....

(L. Dassance)

Oroitzen naiz zein nolako okasioarekin ikusi eta ezagutu nuen aita Villasante lehen aldiz. Milabederatzi ehun eta hirurogeita zortzia zen, eta garai hartan ni Salamancan istudiante. Koldo Mitxelenaren gomitz Arantzazura hurbildu nintzen eta hantxe euskalari anitzen artean bazen bat, taldearen buru izanik ere apal eta zuhur, Axularren itzala eredutzat aurkezten ziguna. Beraxe zen. Bigarren aldia Donostian izan zen, Urkixoren mintegian hain zuzen, eta testu zaharren berrargitaratzearen beharraz, sail berezi batez mintzatu genion elkarri. Orduetik hona errekek ur ugari eramane du, eta egun, beti irakasletzat izan dudane frantziskotarraren omenaldia dela eta ezin omenezko lore apal hau, nere literatur aletxo eskaini gabe gelditu.

Berak idatzitako artikulu bat¹ izan dut gainera akuilu eta ideiaemale, hain zuzen. Donibane Lohitzuneko eskolaz mintzo zitzaigun hartan, Sara-Donibane inguruan bildu zen konpainia eder, gizon kulto eta letretan hornitua zen haien euskal lanez. Lapurditik Xuberoara eramane nau irudimenak, eta beste literatur mota batez idazteko asmoa sorrarazi dit.

* Ikerketa xume hau *Barcoxeko koblakari eskola XVIII-XIX. mendeetan. Bertso eta kanta bilduma* liburuxkaren aitzin-solasa duzu.

¹ L. Villasante, «Donibane Lohitzuneko idazle eskola XVII, mendeetan», *Gure Herria*, 1973, 129-141.

Barkoxe inguruan jaio, hazi eta bizi izan ziren koblakariak aztertzekoa. Eta uste dut, orain hemen hasten dugun ikerketa lana sakonago eta zehatzago daitezkeen beste zenbaiten hasiera besterik ez duela izan behar.

Lehen-lehenik galdera multzo bat pilatzen zait lumaren puntan. Nor dira barkoxtar horiek? Ba ote zuten maisurik, edo aitzin-gidaririk? Non ziren eskola-tuak? Zer idatzi zuten, edo hobeto galdetua legokeena, zer kantantzen zuten? Eskola bat osatzen ote zuten?

Galdera guzti hauei neurri apal batean bederen erantzuten saiatuko gara.

V.F. von Humboldt-ek² Euskal Herritik 1801. urtean egin zuen bidaiaren har-uriko oharretan Zuberoaz ere mintzatzen zaigularik ondorengo hau esaten zuen: *hemen ere ez da batere arrotza bapateko bertsogintza edozein gairi buruz.*

Beraz, bertsolaritzak bizirik zirauen XIX. mende hasieran jakintsu famatu hark ezagutu zuen unean. Baina, jakina da XVIII. mendearen bigarren partean izan zirela bertsogile zenbait Lapurdi, Basanafarroa eta Zuberoan, eta horien lekuko ditugu, besteak beste, Salvat Monho³ apezaren bertsoak, Iraultza Frantse-sari buruzkoak berriki A. Zavalak⁴ bilduak, hala nola neronek argitaratutako lehen kanta eta bertso biduma⁵.

Oraingo gure ikerketak, ordea, mugak eta hesparruak oso hestu ditu. Zube-roa, eta bereziki Barkoxeko koblakariak XVIII-XIX. mendeetan.

1. Beñat Mardo (...1757....1793)

Louis Dassance⁶, herri literatura eta kantu maitale handi hark, Pierre Lafitte-rekin argitaratu zuen kanta bilduma interesgarri hartan *Kantu, Kanta, Khantore* (Baiona, 1967), euskal kantaren kronika egin nahirik ari zitzaigunean galdera hau egiten zuen: nor izan zen lehen koblakaria?

Bertan ematen digun erantzuna hau da: Beñat Mardo, barkoxtarra⁷. Baina, zer dakigu Beñat Mardo? Ezer gutxi⁸. Iada Agosti Chahok honen kantez idaz-ten zuelarik honakoa zioen:

² W.F. von Humboldt, *Los vascos, Apuntaciones sobre un viaje por el País Vasco en primavera del año 1801*, Auñamendi, San Sebastián, 1975, 186.

³ P. Lafitte, *Poèmes basques de Salvat Monho (1749-1821)*, Ikas, Bayonne, 1972.

⁴ A. Zavala, *Frantziako Iraultza eta konbentzioko gerra bertsotan*, Etor, Donostia, 1989.

⁵ P. Urkizu, *Berto zahar eta berri zenbaiten bilduma (1798)*, Durangoko Udala, 1987.

⁶ L. Dassance, «Chronique de la chanson basque. A propos de Beñat Mardo», *Gure Herria*, 1967, 289-296.

⁷ Idem. Les plus anciens dont le nom soit connu: Beñat Mardo.

⁸ J. Haritschelharrek dioskunez Barkoxeko parrokoiko errejistroak desagertu egin ziren. Hare-re, Paueko artxiboen katalogoan, ikusi genuenean, *Naissances, baptêmes, mariages de Barcus (1671-1792)*. GG 11.uste izan genuen esperantzaz ediren genezakeela argitasunik. Tamalez, betiko fatu beltzak desagerrarazi zuen agiri hura, eta ordez, zenbait notariren agiri batzuk besterik ez da

Vingt volumes ne contiendroient pas ses oeuvres s'il avait eu un sténographe avec lui dans les séances poétiques qu'il donnait en toute occasion?

Beraz, aski ezaguna behar zuen izan Beñat Mardo barkoxtarra XVIII.mendearen bigarren partean, eta seguraski Dassanceren iritziari jarraikiz 1757. urtekoa den *Arbotiko prima eijerra*, ezteitako kanta berak ondua behar zuen izan, beronen xehetasunak Jean de Jaugain-ek¹⁰ eskaintzen dizkigularik. Alegia, Arnaud-Jean d'Uhart-eko zalduna eta Maria de la Plaza primaren arteko ezkontzaren okasioarekin ondu zuela. Garai beretsukoa litzateke ere beste epitalamio bat *Garruzeko jainak, plazer baduzie*, hau da, Berdeco jaunaren eztaietan abestu zuena Margarita Basterretxe barkoxtarrarekin ezkondu zenean (3-I-1769).

Khantore honek lau bertso ditu, hiru euskaraz eta laugarrena, senarra den Berdeco medikuari eskainia, frantsesez. Noski, honek ez bide zekien eta euskaraz. Beraz, poema elebidun baten aitzinean aurkitzen gara, eta ez da bakarra Mardoren bertsoen artean. Honen arabera ikus dezakegu Mardo gizon jantzia zela, bertso molde ongi eraikiek ere agertzen duten bezala.

Baina, zer idatzi zuen edo zer gelditzen zaigu bere bertsoetarik?

Sallaberryk 1870. urtean, eta lehenago F. Michelek 1857.ean, baina azken honek egilea aipatu gabe ematen dizkigute Mardoren bi kanta, honelako hasiera dutenak:

— *Idiarte ñaphurra/aspaldian hala da*¹¹.

— *Ni deitzen nük Beñat Mardo, Barkoxe Baxabilako*¹².

Bere kantu bilduma ederrean zioenez Mauleko abokatak¹³, barkoxtarraren obra gehienak galdu egin ziren. Baina argitaratu gabe utzi zituen kaieretan hala nola aipatu Dassancek eta Lafittek plazaratuak bilduaz zortzi poema ezberdin biltzea lortu dugu. Kontutan harturik sakabanatuak daudela errebistetan eta ia ezagun bakarra Salaberryren kantutegikoa dela, hauen biltzeari egoki iritzi diogu. Hona zortzi kanta hauen hasierak:

gelditzen. Bertan aurkitu dut Mardoenean bildu zirela hérriko agintariak (22-VII-1775) Pierre Ascos-en kontra. Urte horietako testamendu agirietan (1774-1778) esaten da nola lekukoen aurrean irakurriak izan diren, *tant en français qu'en langue vulgaire basque qu'il a dit avoir bien entendu*. Beraz, euskaraz ongi ulertzen zutenak zirela hil zorian zeuden barkoxtar haiek. Eta frantsesez? Agiri horietan irakur dezakegu ere, nola Pierre Topet 1792, etik 1800.era izan zen *agent municipale de la Commune de Bartus, en qualité d'administrateur des biens des pauvres du dit lieu*. Eta nola Arnaud Etchahun barkoxtarrak 15 libera eman zituen pobreen alde (29-VIII-1778). Beraz, Mardo eta Etxahun, antza denez, familia oneko semeak ziren.

⁹ J.A. Chacho, *Biarritz entre les Pyrénées et L'Océan. Itinéraire pittoresque*, Bayonne, 1855, 159.

¹⁰ J. de Jaugain, «Quelques légendes poétiques du Pays de Soule», *La tradition du Pays Basque*. Donibane Lohitzune, 1897, 408-409.

¹¹ F. Michel, *Le Pays Basque...*, Paris, 1857, 368.

¹² J. Sallaberry, *Chants populaires du Pays Basque*, Bayonne, 1870.

¹³ Idem. ses oeuvres poétiques se sont malheureusement perdues pour la plupart (p.409).

I. BEÑAT MARDOREN KHANTORIA¹⁴.

Ni deitzen nük Beñat Mardo Barkoxe Baxabilako

II. KONBERSAZIONEA AFER BATEN ETA ÑAPHUR BATEN ARTIAN¹⁵.

Idiarte ñaphurra/aspaldian hala da

III. JAUN BARUA UHARTEN¹⁶.

Jaun barua Uharten, nahi denian Zalgizen

IV. BESTALIARRAK¹⁷.

Etxebarne, Etxegoihen, Elixalt eta Allende

V. TXIPA ETA BATEZ¹⁸.

Adiskide eli batek baziela junta

VI. ARBOTIKO PRIMA EIJERRA¹⁹.

Jaon baruak aspaldin/xederak hedatü zütin

VII. MUS DE BERDECO²⁰.

Garruzeko jainak, plazer baduzie

VIII. BARKOXEKO GATU-JALEN KHANTORIA²¹.

Ihautiria huilantzen/Maltesak orhitzen

Lehen kantan ikusten dugunez, Beñat Mardo harro zen khantoreak ontzen zituelako, eta bere etsaia samurtzen du esanez, bera dela arlo honetan *buruzagia*, eta, beraz, ez dezala ondu kantorerik haboro Montseñako konteak. Honek, ez dezala horregatik har banitaterik, erantzuten dio, eta ez zaiola joango Gaiñetarik aperendizik, bertso ikaslerik. Gaiñe, ezaguna den bezala, Atharratze eta Barkoxe bidean dagoen borda baten izena dugu. Beraz, badirudi aperendizak izaten ohi zituztela garai hartako koblakari famatuek eta urguiluz betetzen zirela honekin. Sei hirurkunez osatutako kantore honetan bada bertsolerro bat indar berezkoa, eta ohi bezala kantaren esanahia biltzen duena, alegia, azkena eta honela dena:

Hi tailur hizan bezala ni zintzarri egile.

¹⁴ J. Sallaberry, aip. lib. 384.

¹⁵ F. Michel, aip. lib., 368.

¹⁶ MS Sallaberry.

¹⁷ Igela 3, Paris, 1962, 101.

¹⁸ P. Lafitte, «Deux chansons de Beñat Mardo découverts par le R.P. Lhande», *Gure Herria*, 1950, 293-299.

¹⁹ J. de Jaurgain, aip. art., 408-409.

²⁰ L. Dassance, aip. art., 291.

²¹ L. Dassance & P. Lafitte, *Kantu, Kanta Khantore*, Bayonne, 1967, 184.

Sastrea genuen, bada, Beñat Mardo, jantzi egile. Baina fama eta ospe handikoa, zeren kanta honen oihartzunez eta eraginez, hain zuzen, onduko zuen seguraski Mattinek beste hura:

*Ni laborari nago, zaude deputatu*²².

Bigarren kanta, lehena zenbait aldaera xumetan iritsi zaigun bezala, bi era ezberdinetan agertzen zaigu. Falta zaio II. ari III.aren lehen bertsoa, hau delarik, antza, hasiera. Bertan Beñat Mardok Uharteko Jaun baruari khantore berriak ontzeko baimena eskatzen dio, eta Zalgizeko Idiarti ziria sartuz jarraitzen du.

Interesgarri deritzot bertso berauen erkaketari, hiru aldaera ezberdin baitira. Ikus dezagun, bada, hiru bertsomolde ezberdinok:

- A — *Beñat, esker dereiat,
Hirur kalota batiat.
Hire sagarroi larrukoaz beharrik batere eztiat,
Ihaurentako begira ezak, joaiteko ohiarat
Petirikin lotzerat*²³.
- A' — *Beñat, esker dereiat, hirur perruka batiat,
Hiharentako begira itzak sagarroi en larriak,
Eta egin kailota bat juaiteko oherat
Eta ez neskatiletat*²⁴.
- A'' — *Beñat, esker dereiat,
Hirur perruka badiat,
Sagarroi larruz eginik, eta
Hire begiratzen tiat*²⁵.

Chahok dioenaren arabera, Mardo bere bizitzako memento honetan izan zen lehen aldiz garaitua bertsoan, Idiart Zalgizekoak irabazi ziolarik partida, bere burusoilaz irri eginez. Eta beste hau eransten digu, atharraztar batentzat agian gogorxko zitekeena, alegia, xuberotarren artean barkoxtarrak zirela izpiri-tutsuenak²⁶.

Hiru bertso molde ezberdinak, 7aa15AA7a/15AAA7a/7aa10-7a, dira, eta nabari denez bost, lau eta hiru pundukoak. Errima ez da oso aberatsa, herri bertso

²² P. Lafitte, «Herri Literatura», *Euskal Literatura*, P. Urkizuren edizioa, Donostia, 1990, 40.

²³ F. Michel, 368.

²⁴ MS Sallaberry

²⁵ J.A. Chaho, *Biarritz...*, II, 161.

²⁶ «Les paysans de Barcus, à notre avis, sont les plus spirituels de la province souletine», Idem, 161.

anitzetan gertatzen ohi den bezala. J. Haritschelharek²⁷, *strophes hétérométriques monorimes* delako sailean sartzen dituenak dira, bostekoa eta bi lauko hauek. Azkena, koplaz zaharra deitua izan dena, jada *Bereterre-txen khantorea*-n agertzen zitzaiguna, eta Oihenarteren iritziz euskaldunek propioa omen dutena²⁸.

III.kantan nabarmentzen dira bi kantu ezberdin daudela nahasirik. 1-4 bertsoak II.aren aldaerak ditugu, hots, Beñat Mardo eta Idiart Zalgizekoaren arteko lehia eta bertso-gudua adierazten digutenak. 5. bertsoak, aldiz, beste kantu baten hasiera ematen digu, *Saratzaga gora da, han aidea fresko da*, hain ezaguna den, *Salvatore gora da Garazi aldean*, kantaren paretsua baita. Hemen, gainera, lehian dabiltzanak ez dira bi aurkako, bi lagun baizik. Bi barkoxtar, Arotx gaztia eta honen kosi Beñat, gure artean *primo*, laguna bezala erabiltzen dena. Haritschelharren tesian agertzen diren Arotx ezberdinen artean, garaiaren arabera, uste dugu Alexis Arotx laboraria zitekeela, Zalgizen (agian Idiartek) bertsoak egin dizkioena:

*Arotx, egun entzun diat hire berri handi bat
Zalgizen egin dereitezala kantore berri eli bat (III-6).*

Ez ziren, bada, soilik barkoxtarrak kantore, kobla, berset ontzale eta egile, Zalgizen ere baziren, Atharratzen, Altzain eta beste herrietan ziratekeen gisara, baina zerbaitegatik noski iritsi zaizkigun hoberentsuenak barkoxtarrak izaki. Horrelakoxea zen, bederen, Chahoren iritzia, honen ustetan izpirituz jantzienak baitziren. Halaber bada fabrika marka bezalako bat agertzen dena zenbait kantatan, eta bertsolerro hauek baltzen dutena:

*Khantore hoiek dira Barkoxen hünturik (XII-10)
Berset hoiek düütüzü Barkoxen hünturik (XVII-13)*

Bestalde, iritsi zaizkigun Mardoren (bereak badira) zortzi kantak honela sailka genitzake. Hiru irri eta ziri alorrean (5-III); beste hiru mahai kantak (VI-VIII), VII.ak mozkorraldi baten ondorengo gertakuntzak kontatzen dizkigularik; eta bi amodiozkoak: IV.ak aitoren semeek ohi zuten xoriehiza aipatzen digu, eta V.ak ezkontzetako ohizko kanta ematen.

II. Piarres Topet Etchahun (1786-1862)

Nork ez du ezagutzen biziaren latzak, krudelkeriak eta malurak astindutako barkoxtarraren bizitza tristea? Hainbeste tinta isurarazi du bere historiak, elaberri, antzerki eta pastoraletan, ez dezakedala ia ezer gehiagorik erantsi, batipat, aipatu J. Haritschelhar-en tesi ederraren ondoren.

²⁷ J. Haritschelhar, *Le poète souletine Pierre Topet-Etchahun (1786-1862). Contribution à l'étude de la poésie populaire basque du XIXe siècle*. Bayonne, 1969.

²⁸ A. d'Oihenart, *L'art poétique basque (1665)*. P. Lafitterren edizioa, Baiona, 1967.

Berrogeitabost poema eta hauen aldaera multzo interesgarri bat ematen dizkigu, baina, antza denez, eta ikerketak oro bezala idekiak izaten ohi direnez, egile baten poema bilduma, berak itxi ez duenean, heda eta zabal daiteke ere. Tx. Peillen eta J.M. Bidexagarrek utzitako kainerrei esker topatu ahal izan ditugu aldaera anitzen artean, agian Piarres Topet Etxahunek, edo bestela bere garaikide-
ren batek ondutakotzat jo ditzakegun beste bost poema, honela kopurua berrogeita hamarrera iritsiko litzatekeelarik. Hauexek dira kanten lehen bertsolerroak:

IX. MUS DE LARREREN KHANTORIA

Abairiak zahar eta khantoriak berri

X. GAZTELONDO GAINEKO ETXEKO ALABA

Abairia zahar eta khantoriak berri

XI. MUS DE DARROQUINEN KHANTORIAK

Oi! ene maite pollit kolore gorria

XII. IDIART APHEZA

Liginagan die aizua Astue

XIII. BARKOXEKO BURGIAN

Barkoxeko burgia/Ahalkez bi begiak lurrian

Zerk bultzatzen gaituen Etxahunenak edo garaikide batenak direla bertso horiek esatera? Agertzen diren pertsonaiak, hizkerak, bertsomoldegintza eta beste zenbait xehetasunek, noski.

IX.kantan Mus de Larre medikua aipatzen zaigu 2. bertsoan. Gure ustez Laurent Larre Maulekoa date, Etxahunen begi zaintzailea, 1850.urte inguruan bizi zena, eta Haritschelharrek maiz aipatzen diguna. Barkoxe, bestetik lau aldiz izendatzen zigun, azkeneko aldian honelaxe:

Zien antxu galdiaz berri deraiziet,

Barkoxen da herakiten jaun batek ezarririk. (IX-16)

Argi da koplakaria barkoxtarra dela, edo bederen une horretan Barkoxen bizi zela, eta 1850. urte inguruan Etxahun zen, noski, koplakarien jaun eta buruzagi. Gaia hain erretserbatua zelarik, eta bera hainbat gorrotoren sorrerazle ez da harritzekoa izena izkutuan uztea, gorroto eta higuin haboro ez sortzearren.

X.a *Gaztelondo gaineko etxeko alaba gaitzat* duen kantorea da, eta lehendik ere ezagutuak genituen *Gaztelondo handian*²⁹ bertako alabaren ibilerak. Kanta honek hark bezala hamazazpi bertso ditu, azkenekoak honelaxe dioela:

²⁹ J. Haritschelhar, «L'oeuvre poétique de Pierre Topet-Etxahun (Texte-traduction-Variantes-Notes)». *Euskera*, Bilbao, 1970, 320.

Berset hoiek egin tut herabereki,
Pharkamentu galtho nago mundu orori,
Jinkuak eman deiku odre hori umilki,
Ogenak pharka gintza batak besteri,
Orori kito beniz
Ene partideki
Hel gitian oro zelian iruski. (X-17)

Erromes partitu aurrekoa ote? Kanta berean, beste bertsolerro batetan Arañe Goihenetx, dendari gaztea, agertzen zaigu, berau ezaguna ere *Arengaraiko primaren khantoria*³⁰ zela medio.

XI.kantorean Mus de Darroquin agertzen da. Justin Darroquin Garindañeko auzapezak 1850.urtean ez zuen batere gogoko Etxahun, koplakari barkoxtarraren aurka birritan bere lekukotasuna eman baitzuen. Mendekioz ote zuen idatzi eta kanta Etxahunek (bereak balira bertsoak) alkatearen bihotz gogorra eta ibilera ez-kutuak?

XII.a maskaradetako kanta bat dugu, eta balirudike Oxalde Lapurdi aldean zebilen bezala herriz-herri tobera kantak abesten, herri zenbaitetako gaztek deiturik arituko zela ere Etxahun, haien gogoak betatzearren neskatil zenbaiti ziria sartzen, kasu honetan Margarita Etxeberriri suertatuko zitzaizkiolarik pairatzea koblakariaren zirikadak. Astolasterretan maiz aipatzen diren adarrak ere ageri dira:

*Bonurra dukenak zu ukheitez emazte,
Adarren sorhayo izan behar duke. (XII-8)*

Eta XIII.a da eskuzkiribuak berak ematen duena zehazki Etxahunena bezala, eta hain zuzen, bere beste kantetatik ezberdinen dena. Honelaxe dio kaierrak: *Poème composé par Etchahoun en prison*. Hiru bertso ditu eta moldea, 8aaa4a8a4a, dugu, beraz, seiko nahasi bat, Etxahunek darabiltzan moldeetarik ezberdina.

J. Haritschelharren ustetan ez hau, ez besteak ez dira Etxahunek ondutakoak.

V. Alexis Arotx (...1795...)

Beñaten kusia. Barkoxtar hau ikusia dugu jada Zalgizeko merkatutik itzultzerakoan erosi duen txerrittoarekin, kobla batzuen pairatzaile, eta nola abis onak ematen dizkion maisuak. Oraingo gure hipotesia hauxe da, alegia, *Mendikota Hastoiko khantoria*, deitzen dena berak ondutakoa dela. Zergatik? Zenbait aldaeretan ez bada ematen kantore honen egilearen izenik, eta nola eman, erdi-izkutu-ka baizik, apezek hainbesterainoko boterea zuten garaietan? Diot, apez baten

³⁰ Idem, 684.

amodioa bertan salatzen zelarik, zail zela koblagilearen izena agertzea. Baina, koblakaria, bestalde, harro zegokeen ondutako bertsoekin, eta horrela beste zenbait kasutan bezala erdi-gordeta adierazten digu nor den. Kantorearen bi aldaerok ematen ditugu ondoan, ikus dezagun nola denboraren poderioz jatorria estaltzen zihohan:

- A *Arotxaren zamaria, erradak egia,
Nurat eraman dian aphez gelharia.
Eraman ukhen dizut lehenik Maulera,
Gero hantik aitzina zuk erran lekhila. (XVI-10)*
- A' *Petteren zamaria, erradak egia,
Norat ereman dukan ene gelaria.
Hamar hameka orenetan Ainharbeko bentan
Gauherdi joiten eta Mauleko kharikan. (XVI'-9)*

Apez-gelariak, serorak eta apez-andreak antzinako denboretan oso arruntak bide ziren, hiztegiek eta kantek salatzen digutenez.

VI. Mardo eta Etxahunen jarrailea

Bertso bilduma honetara ekarri dugun azken kanta, XVII.a da, eta ohizko egiturarekin hasten zaigu. Hona beste bi lehen bertsolerrerekin erkatuturik:

*Salbatore gora de Garazi aldean (KKK, 114)
Sartzaga gora da han aidea fresko da (III-5)
Ziberuan gora duzu Alzaiko herria (XVII-1)*

Gai berri bat dakarkigu gainera kanta honek, alegia, *Prima gazte ezkuntgeia eta Indianua*, izeneko istorioak. Badu honek ere ziririk barkoxtarren izpirituek ondutakoek bezalaxe, eta egilearen adimenean nabari da hori duela asmo, nahikunde eta gutziarik bortitzena. Maisuen bideari jarraikitzea, azken bertsoan azaltzen duen bezala:

*Berset hoiek dutuzu Barkoxen hunturik,
Mardok eta Etxahunek ideia emanik,
Hoier jarraikitia primantzaz ukhenik,
Egilia eztizu beste huntarzunik. (XVII-13)*

Beraz, aurkezten ditugun hamazazpi poema hauek izendatu dugun Barkoxeko eskolaren adierazle zenbait besterik ez dira, eta segur gaude beste azterketa mota anitz eta komentario gehiagoren premian daudela. Baina, beude bere apaltasunean sarrera gisara, gure asmoa horixe besterik ez baita izan. XVIII.mendearen bigarren partean eta XIX.eko lehenbizikoan izan zela Zuberoan koblakari eskola bat agertzea, barkoxtarrak buruzagi izan zirelarik, eta lehena, Beñat Mardo.

Beñat Mardo, Museña, Alexis Arotx, Idiart Zalgitzekoa, Piarres Topet Etxahun, Artzaia, Dominike Haritxabalet, eta Mardo-Etxahunen jarraitzailea.... Zortzi koblakari ditugu, eta seguru gaude ez zirela bakarrak Barkoxeko koblakari eskola osatzen. Umore eta fineziaz jantziak, mihi zorrotz jostalariak ornuak, izpirituz beteak, badirudi mende oso bat betetzen zuketela Mardo eta Etxahunen koblakari garaikideak, A. d'Abbadie-ren Lore Jokoak Urruñen XIX.menderdian hasi aitzin.